

# B

BARREN



## Soarteren soka dantza



bihar  
larunbata 24  
azken eguna!

udal arreta bulegoan  
9:00 - 13:00

# D3M SINATU!

## aurrera begira



### *Osasun eta Edergintza Zentzu Bezzia*

- Fotoia
- Spa
- Dietetika eta nutrizioa
- Mikropigmentazioa
- Obesitate sendagilea
  - Barizeak
  - Gazte mantentzeko
- Estetika



  
aupa  
zen

## Krisian nago

Filosofiako ikasketak egiten konturatu nintzen zein inportantea zen, edozein arlo aztertzeke, egoerak arrazionaltzea. Gizakiak, mundua menperatu eta bere onerako ustiatzeko, behar-beharrezkoa izan zuen ikuspuntu arrazionala erabiltzea.

XVII. eta XIX. mendeetan, zientziak arrazionalki egituratu zirenean, izugarritzko garapena egin zuten, eta XX. mendeko azken urteetan, gizarte aurreratuenean, denok sinistu izan dugu, eraginkortasunaren izenean, edozein eremuko plangintzan eta metodologia zehatzetan oinarritu behar duela.

Gu ere, azkenaldian, halako uholde plangintzazaleak irentsi gaitu, bai enpresa munduan, bai instituzioetan, bai gizarteetan. Eta hurbiletik ikusi izan ditut euskararen normalkuntza planak, lantegi eta ikastetxeetako kalitate planak, plangintza familiarak, kultura, elkarbizitza sustatzekoak, etorkinak hartzeko planak. Hasi norbanakotik eta Nazio Batuetaraino, plan estrategikoak, legislatura planak, produkzio planak, edo urteko planak egiten ari gara.

Baina bada arlo bat, non plangintzaren beharra aipatzea erabat gaizki ikusia dagoen. Ekonomia da. Kapitalismoak garatu duen sistema plangintzarik gabeko eremua da. Produkzioak ez du zerikusirik gizartearen beharekin, finantza mundua diru hutsalez gora eta behera dabil, merkatua bere kontura orekatzen omen da, eta aberastasuna pilatu daiteke, neurri gabe, ahal izanez gero.

Baina horrek beste aldea dakar, langile behartsu eta justuko-en talde izugarria, kontsumoan eta ordu extretan harrapatutako klase media zabala, langabezia, lehiaketa, enpresari eta kons-

truktoreetan oinarritutako gizarte desarrollista, eta, lantzean behin, sistemaren porrota –krisia deitzen duguna. Kapitalismoa, berriz ere, berreraiki nahian ari dira, partxea hemen eta han, hurrengo krisira arte iraun dezan. Zergatik ez ekonomia planifikatu, beste arlo guztiak bezala? Arrazoizkoa litzateke, eta arrazionala. Baina inork ez du hori aipatu ere egiten.

Iñaki Odriozola

"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitzez gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**“Zergatik ez ekonomia planifikatu, beste arlo guztiak bezala?  
Arrazoizkoa litzateke, eta arrazionala”**

## ZEURE BLOGA IZAN NAHI DUZU?

Hauek badute berea



Jarri gurekin harremanetan [elgoibarren.net@elgoibarkoizarra.com](mailto:elgoibarren.net@elgoibarkoizarra.com) helbidean

**www.elgoiBARREN.net**

**Egin  
klik  
eta  
ikusiko  
duzu**



# IÑAKI SAN MARTIN

‘SOARTE’

ARGAZKILARIA

“Argazki on batek  
zeozer esan  
behar du: mezua  
eduki behar du”



Iñaki San Martín *Soarte* hamazazpi urterekin hasi zen argazkilaritzan “serio”. Donostian egin zituen ikasketak, eta handik Italiara joan zen. *Apur batean soka dantza* erakusketa zabaldu zuen joan den barixakuan Urretxun. Haritz dantza taldeak San Bartolome Egunean, abuztuaren 24an, Plaza Handian irudikatzen duen soka dantza da erakusketako protagonista. Azken bi urteetako soka dantzetan ateratako argazkiak erabili ditu Soartek argazki bilduma edo erreportaje honetan, 35 argazki inguru guztira. Erakusketara joan ezin duenak, [www. fotografiasoarte.com](http://www.fotografiasoarte.com) helbi-dean ikusi ditzake argazki batzuk.

**Apur batean soka dantza erakusketa inauratu berri duzu. Nondik sortu zitzaizun ideia?**

Nire burutik sortuta dago. Elgoibarren bizi naiz, Elgoibarko argazkilaria naiz, eta 30 urte nabil argazki munduan. 2006. urtean, Elgoibarko jaietan, hilaren 24an kalera irten, eta zerbait egitea bururatu zitzaidan. Bi urteko argazkiak dira, eta erreportajea egin dut.

**Zergatik euskal dantza?**

Euskal Herriko zerbait atera nahi nuen, eta erreportajea izatea nahi nuen gainera. Edozeinek dauka aukera erreportajea egiteko; bestela, askotan kalean entzun behar izaten dugu argazkilariorik medioak ditugula argazkiak ateratzeko. Ez nuen nahi hori gertatzerik: ideia batetik zerbait gustagarria ateratzea nahi nuen.

**Dantza zelan egiten den baino, soka dantzaren inguruan duzun ikuspuntua erakusten duzu argazkietan...**

Soka dantza ordubete ingurukoa da, eta nik sinopsia egin dut. Nire ikuspena edo iritzia islatu dut argazkietan.

**Argazkiak ez dira tradizionalak...**

Soka dantza bera tradizionala da, baina argazkiak ez. Hainbat argazki estilo ukitu nahi izan ditut dantzaren inguruko nire ikuspegia erakusteko. Argazkitik pinturara joan naiz. Urte mordera nabil ibilbide hori egiten, argazkitik pinturara, eta denetik erabili dut: olio, pintzelak, akuarelak, aerografia ere erabili dut... ez dira argazki hutsak. Onena ikustea da.

**Eta ikusi dutenek zer diote?**

Erakusketara argazkilaria joan dira eta sorpresa izan da. Eta hori asko gustatu zait. Jendeak askotan esaten du artelanen aurrean, ez dutela ulertzen; baina, kontua ez da ulertzea. Kontua da gustatzea edo ez. Erakusketatik nola irteten zaren da kontua: sentsazioa. Profesionalak esan dutenak eduki ditut kontuan, baina profesionalak ez direnek ziotena ere bai. Eta galdera bera egin didate batzuk: "Hau zer da, argazkia ala pintura?". Hori da pixka bat lortu nahi nuena.

**Margolanak egiten dituzu argazkiarekin uztartuta beti?**

Sekretu bat: Italiatik etorri nintzenean margotu egin nuen. Baina uholdeak izan ziren, eta erakusketa guztia hondatu zen. Harezkero ez dut gehiago margotu. Orainxe hasi naiz zerbait egiten.

**Argazkiak, margoak... artelanak direla esan daiteke?**

Argazkitik pinturara joan naizenez, mihisea erabili dut lan batzuetan. Erakusketak estilo bat dauka, eta niretzako inportanteena da nire argazki bat ikusi eta nirekin lotzea. Abeslari batekin gertatzen den bezala: abestia entzun eta badakizula zein den. Baina nik esan beharrean, kritikoez esatea nahiko nuke.

**Argazkiari helduta, kamera analogikoak ala digitalak nahiago?**

Gaur egun ez da egiten argazkirik ukitu gabe. Tratututa daude guztiak. Digitalarekin argazkiak atera ahala ikusten duzu zer daukazu: analogikoarekin misterio gehiago zegoen. Hala ere, gaur egun lana egin behar da argazkiak ateratzeko.

**Erakusketa zabaldu duzu, baina, azkenaldian zein lan mota egin dituzu?**

Normalean katalogoak, enpresentzako lanak, eta estudioko lanak egiten ditut (jaunartzeak, ezkontzak): profesional mailan edozein erreportaje mota egiten dut.

**Aurreko erakusketa egin zenuenetik 25 urte pasa dira...**

Azken erakusketa 1984an egin nuen: Veneziako Inauterien gaineko erreportajea zen. Orduetik ez dut erakusketarik egin. Lanean aritu naiz buru-belarri eta ez dut astirik hartu. Baina zerbait egiteko gogoa neukan: esplosio antzeko bat egin nahi nuen. Argazkiak eta margoa nahasteko lanetik kanpoko denbora erabiltzen dut, eta horregatik kostatzen da erakusketa berri bat antolatzea.

**Argazki on batek zer eduki behar du?**

Argazki on batek zeozer esan behar du: mezu bat eduki behar du. Akaso izan daiteke momentua, edo kolorea... ikusi eta sentimendu bat atera behar du.

**Edurne Burgaña**

## Soka dantzaren historia

Haritz dantza taldeak 1999 urtean kaleratutako *Dantzan* liburuan, soka dantzak Elgoibarren duen historia kontatzen da. Koldo Lizarralde eta Pello Arrietak artxiboetan egindako bilaketa lanak erakutsi zuen dantzak soka luzea duela herrian. Ehunka dantzarik osatzen duten soka luze horrek eutsi dio gaurdaino dantza egiteko ohiturari. Eta ohitura horrek dantza berezi bat jarraitzen du erakusten: soka dantza.

Izen asko ditu: esku dantza, gizon dantza, karrika dantza, aureskua... Azken hamarkadetan, baina, dantza gidatzen duen dantzariaren izena, aureskua, dantzari bakarrekin lehenago lotzen da, dantzariz osatutako sokarekin baino.

Elgoibarren soka dantzari buruzko datu zaharrenak Pello Arrietak bildu ditu: Ermuaren-Sallobente auzoan XIX. mendearen amaieran soka dantza egiten zuten. Resurreccion Maria de Azkuek XX. mendearen hasieran bildutako datua da Elgoibarren Gabon Zahar arratsaldean aureskuak egiten zituztela plazan. Azkueren esanetan, "egun hartan elkar begiz jota neska-mutil asko senar-emazten omen ziren".

Hala ere, errepublika garaira arte ez dago Elgoibarren egiten zen soka dantzaren datu zehatzik. Garai hartan, Romualdo Andonegik jardun zuen Elgoibarren dantzako maisu lanetan. Romualdo eta Tomas Andonegi anaiak 1915-16 inguruan iritsi ziren Elgoibarre-Debatik. Plazan egiten zen dantzaldian, modako piezak dantzatzen trebea zen Tomas. Romualdok, ostera, aureskurako zaletasun handiagoa zuen.

Handik urte batzuetara, 1932ko San Bartolome Jaietan, Romualdo Andonegi eta Jose Lorenzo Pujanak soka dantza aurkeztu zuten. Txiki Egunean plazaratu zuten eta Romualdoren agindupean Arturo Zubiaurrek eta Antonio Azpiakuz jardun zuten bakarlari.

Gerra osteko dantzari gehienek Elgoibarren *Bizkaiko erara* egiten zuten soka dantza, baina, 80ko hamarkadan Donostiara jo zuten Haritz Dantzari Taldekoek gipuzkoako era ikastera.

**“Euskal Herriko zerbait atera nahi nuen, eta erreportajea izatea nahi nuen gainera”**

# UDAL AURREKONTUAK

## %1,5 TXIKIAGOAK

EAJ, EA eta PSE-EEren aldeko botoekin onartu dira aurtengo udal aurrekontuak; EB-Aralar eta PPK kontra bozkatu zuten. Aurtengo udal aurrekontuek %1,5eko jaitsiera eduki dute iazkoarekin alderatuta. Arrazoa, beste behin ere, krisia da. Baina mezu positiboa eman nahian, Udalaren arabera, egoera ekonomiko-finantzarioa osasuntsua da. Hori dela eta, proiektu estrategikoei ez zaie uko egingo. Hala ere, urtea hasi berri da, eta, hilabeteak aurrera joan ahala, aurrekontuan aldaketak egon daitezkeela ere argitu du Udalak. Izan ere, 2008 urteko hasierako aurrekontua 17.106.661,16 eurokoa bazen ere, urtea amaitu zenean, balantzea 21.287.194,66 eurokoa zen.

Edurne Burgaña



Aurrekontua 3 zatitan banatzen da:	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udala: 16.861.270 euro</li> <li>• San Lazaro Egoitza: 1.345.606 euro</li> <li>• Udal Kirol Patronatua: 1.120.500 euro</li> </ul>
--	---

### SARRERA AIPAGARRIENAK

Zerga eta tasak	% 5,5eko igoera (zaborrek %27,33ko igoera)
Udal finantzaketarako fondoa	%1,83ko jaitsiera
Kapitalezko transferentziak	900.000
<i>(Eusko Jaurlaritzaren merkagune eta Izartu programetatik espero den dirua)</i>	
Maileguak	1.574.955

**Sarrerak guztira** 16.861.269,81


### GASTU AIPAGARRIENAK

Pertsonal gastuak	KPI-IPC+%1eko igoera (Politikarien ordainsariak izoztu egingo dituzte)
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	%19ko igoera
Inbertsioak	3.778.500 (%25,68ko jaitsiera)
<i>Hirigintza</i>	
Kirol instalakuntzak	248.000
Antonio Arrillaga kalea urbanizatzea	350.000
Mugikortasuna eta igogailuak	500.000
Lokal sozialak	285.000
<i>Ongizate Saila</i>	
Eguneko zentroa	100.000
<i>Hezkuntza:</i>	
Herri Eskolako estaldura	200.000

**Gastuak guztira** 16.861.269,81

## Aurrekontuak 2004 - 2009

KONPARAKETA	2004	2005	2006	2007	2008	2009
Bare Salla	994.745,42	1.040.291,28	1.129.468,18	1.438.988,08	1.878.214,79	1.927.831,63
Hiri-segurtasuna	656.163,60	742.859,31	862.216,35	1.097.683,18	1.232.183,05	1.263.422,88
Hezkuntza	197.189,60	203.912,42	237.309,28	431.617,48	441.339,43	1.074.040,31
Kultura	1.539.256,55	1.732.161,41	1.762.080,90	1.872.099,71	2.144.088,32	1.694.090,54
Euskara	434.116,28	455.059,15	400.225,63	427.618,12	495.380,41	493.145,80
Ongizatea	2.164.589,55	2.489.896,04	2.539.440,99	2.643.987,86	1.385.790	1.476.388,77
Hirigintza	5.809.914,49	6.111.046,94	6.090.878,54	6.984.873,01	8.097.966,82	7.563.748,15
Ogasuna	1.252.439,97	1.060.316,02	1.040.577,36	1.014.522,55	1.053.607,89	896.130,90
Gazteria	66.990,83	67.988,93	281.892,29	304.639,92	378.090,45	472.470,84
<b>GUZTIRA</b>	<b>13.115.406,29</b>	<b>13.903.531,50</b>	<b>14.344.089,52</b>	<b>16.216.029,91</b>	<b>17.106.661,16</b>	<b>16.861.269,81</b>



### ESTATUKO FONDOTIK 1,9 MILIOI EURO ELGOIBARRERA



Aurten berezitasun bat garrantzitsu bat dago: Estatuak iragarritako Udal Inbertsioetarako Fondoak. Elgoibarko Udalarentzat 1.927.933 euroko diru-laguntza egokitu da. Baina inbertsio horiek bi baldintza bete behar dituzte: aurrekontuz kanpo aurkeztu behar dira, eta enplegua sortu behar dute. Fondoak lau inbertsio finantzatuak ditu: Artetxe auzoko urbanizazio lanak, San Migel auzora edateko ura eroatea (879.339,59 euro), Erretxindi auzoko urbanizazio lanak (607.906,68 euro) eta Sigma auzorako irisgarritasuna hobetzeko eskailera mekanikoak jartzea (152.902,64 euro).

### Berezitasunak

Ondasun arrunten eta zerbitzuen atalak (gastuen bigarren kapituluak), %19,35eko igoera eduki du. Izan ere, Legegintzaldi Plana onartu zuten joan den ekainean (3.978.780 euro), eta atal horretan sartuta dago. Beraz, igoera aurtengo kontua izango dela azaldu du Udalak.

Bestalde, gogoeta fasean daude hainbat proiektu: Pilarren eraikiko den eskualdeko zentroa, kiroldegia, Plaza Txikia, Aita Agirre, azoka eta aparkalekuak, besteak beste.

### 2009ko AURREKONTUAK



## Aipatzeko obra batzuk:

### SIGMA AUZOKO ESKAILERA MEKANIKOAK (152.902 euro)

**E**statuak iragarritako Udal Inbertsioetarako Fondoak emandako diru kopuru batekin Sigma auzoko irisgarritasuna hobetzeko eskailera mekanikoak jarriko dituzte. 152.902,64 euroko laguntza eman du Fondoak. Proiektuaren kostua altuagoa da, baina Elgoibarren muga gainditzen zenez, geratzen den zatia, Udalak ordainduko du. Fondoak eskailera mekanikoen kostua hartzen du, eta obra zibilia Udal aurrekontutik egingo da.



### KIROLDEGIRA IGOGAILUA (500.000 euro)

Trenbideak herria bi zatitan banatzen du, eta igogailuak irisgarritasunerako hobekuntza ekarriko duela dio udalak. Osasun zentroaren alboan joango da igogailua, eta gero zubi antzeko bat jarriko dute kiroldegiko gunera. Helburua kiroldegia herrigunearan integratzea da, eta, bidez batez, gune horretako aparkaleku arazoari irtenbidea ematea.




### TREN ESTAZIOKO IKERKETA (100.000 euro)

Euskotrenek eta Udalak hitzarmen bat sinatu dute tren geltokiaren inguruaren azterketa egiteko. Plaza Txikiaren eta San Roke kalearen artean banaketa urbana sortzen du tren estazioak, eta azterketaren helburua da horri irtenbidea topatzea. Ikerketa geoteknikoa ere egingo dute hango lurren kalitatea aztertzeko.



### ANTONIO ARRILLAGAREN URBANIZAZIO LANAK (380.000)

Elgoibarren hainbat kaletan egin dituzte urbanizazio lanak azkenaldian: Madala kalean eta Pedro Muguruza kalean, besteak beste. Oraingo honetan, Antonio Arrillaga kaleari egokitu zaio. Lan horietarako Udalak 350.000 euro inbertituko ditu.







**Bernardo Ezenarro kalean zabor kontenedoreak ipini dituzte eta aparkatzeko leku gutxiago dago:** “Elgoibarren gero eta garestiago dago aparkatzea. Lehen leku gutxi zegoen, eta orain gutxiago. Herri guztia hankaz gora dago, obretan, eta, gainera, Bernardo Ezenarro kalean zabor kontenedore mordoa jarri dituztenez, aparkalekuak kendu dituzte. Ez dakit non aparkatu behar dugun aurrerantzean”.



**Pedro Muguruza etorbideko kale berrian kontrako norabidean gidatzen du jende askok:** “Madalako errotondatik gertu aparkatuz gero, badago berriz ere Madala aldera irteteko aukera, baina, bestela, Pedro Muguruza etorbidea zeharkatu eta Melitongo zubiraino joan behar da. Behin baino gehiago tokatu zaizkit autoak kontrako norabidean, eta endredu handiak sortzen dira. Udaltzainek ingurune hori gehiago zaindu beharko luketela iruditzen zait”.



**C.D. Elgoibar eta Lagun Onak taldeko jokalariei txalo bero bat:** “Haundi eta Lagun Onak taldeek Mintxetan jokatu zuten partida abenduan, eta bertan Mikel Ibañez presoaren aldeko konpromisoa hartu zuten jokalariek. Elgoibarko presoaren aldeko pankartarekin atera zuten erretratua, eta ja-rreara hori txalotzeko modukoa iruditu zaigu. Ibañez osasun egoera larrian dago, eta herriko erakunde guztien babesa behar du. Hone-lako ekintzak gehiagotan ikustea gustatuko litzaiguke”.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:  
[barren@elgoibar.koizarra.com](mailto:barren@elgoibar.koizarra.com) 943-74 41 12

I. URTEURRENA

## JOSE LUIS ANSOLA ARRIETA

“Olazarra II”



2008ko urtarrilaren 21ean hil zen, 51 urte zituela.  
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, urtarrilak 24,  
arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian.  
Joango zaretenoi eskerrak alde z aurretik.



ESKERTZA

## JOSE ZUBIZARRETA ALBIZU

“Armaitxa”



2009ko urtarrilaren 15ean hil zen.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

**Ikasleok, greba eskubidea orain!!!**

Mekako ikasleok egoera latza bizi dugu ikastetxean greba eskubideari dago-kionez. Ez omen gara protesta egitea erabakitze bezain helduak. Beraien onepenik gabe ez da greba deialdia ofizialki aurrera ateratzen.

Mekako zuzendaritzari buruz ari gara. Ikasleonez erabakiak hartzeko eskubidea duela uste du: guk greba noiz egin eta noiz ez erabakitzea bere gain hartzen du, ikasleonez hitza aintzat hartu gabe. Argi erakutsi digu hori kurtso honetan zehar, egin diren deialdietatik bat bera ere baimendu ez duenean. Darabilen argudioa zera da: egunkarietan deialdi hori

agertzen ez dela. Ez dira, baina, horrekin konformatzen eta ikasleria informatzen diharduten ikasleok zuzendaritzaren jazarpena jasan behar dute; atzetik kartelak kentzen eta mehatxuka ibili izan dira.

Egoera horren aurrean, ordea, ikasleok ez dugu burua makurtzeko asmorik. Gure erabaki propioak hartzeko nahiko helduak bagarela erakutsiko dugu. Ikasle guztion indarrak batuta, geurea den greba eskubidearen alde borrokatuko gara.

Datozen asteetan, festa eta borroka uztartuz, ikasleok greba eskubidea aldarrikatuko dugu. Urtarrilaren 30ean, arratsaldeko 18:30etatik aurrera, Elgoibarko Gaz-

tetxean greba eskubidearen aldeko ping-pong eta futbolin txapelketa eta mojito lehiaketa izango dira. Gauean hainbat taldek gure aldarrikapenarekin bat eginez kontzertua emango dute (Revelphone, Egurra ta kitto, Skasti, Sexploxió eta Junzaitxe etxera)

Otsailaren 3an beriz, greba orokorra deitu dugu ikastetxean. Egiten uzten ez digutena egitera goaz. Greba gure eskubidea da eta berma dadila exijitzen dugu. Horregatik, ikasle guztioi bi egun horietan eta ondorengo mobilizazioetan parte har dezazuen eskatzen dizuegu, denon artean lortuko dugulako... lotu borrokara!!!

**Ikasle Abertzaleak** ☺

ESKERTZA

**LUIS AZPIAZU TXURRUKA**



*Laster arte ezpainetan  
utzi gaituzu penetan  
orain gure ametsetan  
bizirik zaude benetan  
zeruko izarretan  
eta gure bihotzetan.*

*2009ko urtarrilaren 17an hil zen. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



**Barren**

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
☎ 943 74 41 12  
Faxa: ☎ 943 74 37 04  
E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)  
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04  
E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

Argitaratzailea:



ZUZENDARIA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Asier Orbea, Oier Narbaiza, Edurne Burgaña PUBLIZITATEA Leire Rubio, Eneritz Lazkano MAKETATZALEA Zalao Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZALEAK Oihana Tarragual, Ibai Portu, Ane Odria, Maialen Olazabal, Andres Alberdi, Anjel Ugarteburu, Abel Irizar, Alberto Agirreazaldegi, Sugar Etxaniz, Arkaitz Irueta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Juanito Gorostiza. INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.750 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Ane  
Odria

Aupa,  
Maialen!

Aspaldian  
irratiko dialari  
buelbaka denbora  
gehiegi pasatzen dut  
aurrera eta atzera eta askotan



Maialen  
Olazabal

Kaixo, Ane!

Aspaldiko ba! Urte berriari hasiera emango diogu 2009ko lehenengo *Zozoak Beleari* idatziaz. Azken egunak elur, hotz eta euritan joan badira ere, irradi uhinak eta zure mezua iritsi dira niganaino. Zure mezua irakurri eta autoan enkargu bat egitera nindoala, irratiko frekuentzia ezberdinetan barrena ibili naiz zerbaiten bila, baina ez dut zuri kontatzeko ezer berezirik aurkitu. Agian, arrazoa ematea besterik ez dagokit.

itzali ere egin izan dut non laga jakin ezinda. Ez ditut hemenngo eta hango irratia bereizten. Zuk zer irradi entzuten duzu?

Gogoan dut ikastolako garaietan zelan *Salgai* programarekin esnatzen nintzen egunero, Itziar Alduntzin, Edurne Garmendia eta konpainiarekin. Iluntze aldera ere, Dani Arizalaren ahotsa entzutea gustatzen zitzaidan, beti *Beste Gu* horren bila. Hura zen orduko Euskadi Gaztea (Euskadi zen orduan ere, ez Euskal Herria, baina tira, Euskadi behintzat). Gero, Egaztea izatera pasa zen. Euskadiri besterik ez zioten laga eta orain ez da ez Euskadi Gaztea, ez Egaztea. Nonbait, euren joerak nondik nora doazen ikusi eta izen erreala goa jarri diote irratitari. Gaztea da euskal musikari bizkarra emanez, Espainian, Europan eta mundu zabalean topera dauden horiek jartzen dituen irratia.

## “Izango dugu ganorazko euskal irradi publikoa eskatzeko eskubidea, ezta?”

Ez dut esaten euskal musika besterik entzun behar duenik Euskal Herriko gazteak, baina izango dugu ba ganorazko euskal (Euskal Herriari begira, noski) irradi publiko bat eskatzeko eskubidea, ezta? Maialen, entzun dut Info7 deitzen den irradi bat ere badagoela... Itxura ona dauka eta probatu beharko, ez da eta zaila izango Gaztea baino gertuagokoa sentitzea.

## “Egia da garai batekoarekin alderatuz okerrera egin duela.”

Ameriketara aste honetan lehen postuan, Britainia Handiko irratietan gehien entzuten den abestia... Horiek izan dira Gaztean neska bati entzun dizkiodan hitzak. Eta nola ez, astelehen goizetan esnatu eta Donostiako Gros auzoko pelukera batek prentsa arrosari buruz hitz egiten du. Astelehen goiz batean hori al da berri garrantzitsua? Ez dakit ba. Hala ere, dena gaizki dagoenik ere ez dut esango. Maketa lehiaketari esker euskal musikari gazteei ere laguntza eta indarra eman nahi izaten diete. Baina egia da bai garai batekoarekin alderatuz okerrera egin duela.

Info7 delako horren berririk ez dut, baina ez da zaila izango orain artekoak hobetzea. Azken batean, komunikabideak dira euskara eta euskal kultura lau haizetara zabaltzeko bideak. Hori guk bultzatzen ez badugu bertako irratien bidez nork egingo du? Muxu bat.



Elgoibarko Udala



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



## BARREN astekariari buruzko idatzizko galdeketa entregatzeko epea otsailaren 15ean amaituko da

Otsailaren 2an telefono bidezko inkestak egiten hasiko dira


**B**ARREN astekariak herritarrek al-dizkariari buruz duten iritzia jakin nahi du, eta horretarako azterketa egingo du. Aztiker enpresarekin elkarlanean burutuko du ikerketa, eta bi atal izango ditu: idatzizko galdeketa eta telefono bidezko inkesta.

Azterketaren lehenengo zatia gaur, ur-tarrilak 23, jarri du martxan BARRENEk. Idatzizko galdetegi labur bat banatu du astekariarekin batera, eta otsailaren 15era arteko epea dago inkesta entregatzeko. Galderak erantzun ondoren, Correosen edozein buzoitan sartu, eta zuzenean iritsiko dira BARRENEko erredakziora. Bestela, BARRENe (Nafarroa Plaza 2) edo Elgoibarko Izarran (Ubitarte 4) ere eskuz entregatu daiteke galdetegia. Horrez gain, galdetegi berbera [www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net) atarian jarri dute erabiltzaileen eskura, eta bertan betetzeko aukera ere badago.

### Otsailaren 2an telefonoz

BARRENi buruzko azterketaren bigarren zatia telefono bidezko galdetegia izango da. Horretarako, Aztiker enpresako langileen laguntza jasoko du BARRENEk, eta otsailaren 2an hasiko dira galdetegiak. Etxebizitzak zoriz aukeratuko dituzte, eta Elgoibar eta Mendaroko 700 etxebizitzatan egingo dituzte elkarrizketak. Hamasei urtetik gorakoentzako prestatutako galdetegia da, eta oso modu errazean, hamabost mnutan erantzuteko modukoa. Aztiker enpresako langileek bi astetan jardungo dute inkestak egiten. Erredakzioko kideek herritarren kolaborazioa eskatzen dute, azken batean, herritarrentzako eginiko astekaria baita BARREN.

Hamasei urte egin zituen BARRENEk abenduaren 24an, eta aurrera begira jarraitu beharreko bidea eraikitzen lagunduko dio azterketa horrek. Batetik, ira-



kurleak zenbat eta zein tipotakoak diren ezagutzeko balio izango du, eta bestetik, irakurleen iritzia jasotzeko. Aste Santu-igururako jasoko dituzte emaitzak.

## AHTren kontrako manifestazioan atxilotua izan ondoren, behin behineko askatasunean dago Justo Arriola



Zapatu iluntzean Justo Arriola askatzeko manifestazioa egin zuten Elgoibarren.

Joan zen zapatuan, hilak 17, Urbinan AHTren kontrako nazio manifestazioa egin zuten, eta bertan, zortzi lagun atxilotu zituen Ertzantzak, tartean, Justo Arriola elgoibartarra. Desordena publikoa egotzi diete atxilotu guztiei, eta epaiketaren zain daude orain, behin behineko askatasunean. Tratu txarrak salatu dituzte atxilotuek, eta auzia Auzitegi Nazionalera eramateko ahalgina egin dutela salatu du defentsako abokatuak. Astelehen iluntzean askatu, eta ongi-etorri xumea egin zioten elgoibartarri AHTren kontrako taldeko hainbat lagunek.

## Izena **Ovidio Campello**



Ovidio Campello, PSE-EEko zinegotzia Gasteizko parlamenturako hautagaia izango da, martxoaren 1eko hauteskundeetan. Gipuzkoako zerrendan aurkeztuko da, hamairugarren postuan. Gaur egun, PSE-EE alderdiak bost parlamentari ditu Gipuzkoan, eta Ovidio Campellok esandakoaren arabera, zortzi edo bederatzirentzako postuak ditzakete. Elgoibartarraren iritziz, zaila izango da aukeratu izatea. Udaletxean eta alderdian egiten ari den lanaren ordainsaria da zerrendan egotea, bere iritziz.

## Zenbakia **130**

2008. urtean 130 ume jaio dira Elgoibarren. Azken urteotako datuak begiraturik, jaiotze tasak nabarmen egin du gora Elgoibarren. Azken bost urteotako datuak hauek dira: 2004an, 96 ume jaio ziren; 2005ean, ehun; 2006an, 118; eta 2007an 109. Jaiotze tasaren gorakadarekin eta atzerriaren etorrerarekin, Elgoibarko populazioa ere gorantz doa azken urteotan. Gaur egun, 11.051 lagun bizi dira Elgoibarren, 2207an baino 158 pertsona gehiago, hain zuzen ere.

## Irudia **Palestinaren aldeko enkartelada**

Palestinaren Aldeko Elgoibarko Plataformak protestaldia egin zuen joan zen barixakuan, hilak 16, Gazako egoera salatu eta palestinar herriarekin bat egiteko. Gazan bonbak botatzeari laga dio Israelgo armadak, eta plataformako kideek protestaldiak bertan behera laga dituzte.



## **Obrak gasolindegian**

Rezola gasolindegian obrak egiten ari dira, eta bertako nagusiak herritarrei barkamena eskatu nahi die sortutako endreduengatik. Gasolindegiko lurra egoera txarrean zegoen, eta hori berritze lanetan ari dira. Bi aste inguru iraungo dute koponketek, eta elgoibartarrei pazientzia eskatu nahi diete.

## **PSE-EEren egoitzaren inaugurazioa 12:00etan**

Apirilaren 20an ETak jarritako bonbaren ondorioz, erabat txikituta geratu zen PSE-EEK Urasandin duen lokala. Hainbat hilabetetan lanean jardun ondoren, gaur izango da inaugurazio ekitaldia eguerdiko 12:00etan. Leire Pajin PSOEko Antolakuntza Idazkaria, Patxi Lopez PSE-EEko Idazkari Nagusia eta lehendakari zarako hautagaia eta Iñaki Arriola Gipuzkoako PSE-EEko idazkari nagusia eta Eibarko alkate ohia izango dira bertan.

## **Matrikulazio epea zabalik Helduen Alfabetatze Eskolan**

Urtarrilaren 30era arte eman daiteke izena Elgoibarko Helduen Alfabetatze Eskolan. Alfabetatzea, atzerriarrentzako eskolak, euskara, ingelesa eta informatika ikastaroak eskainiko dituzte, besteak beste. Interesatuak 943 740 880 telefonoan eskuratu dezakete informazio gehiago.

## **Sahararako janari bilketa**

Saharar Herriaren Gipuzkoako Lagunak elkarteak Sahararako janari bilketa kanpaina jarri du martxan. Elgoibarko BH Institutua ekimen horrekin kolaboratzen ari da, eta institutuan bertan entregatu daitezke elikagaiak. Aurten bilduko dituzten elikagaiak ondorengoak dira: azukrea, hegazuza eta sardinak olio kontserban, pasta, arroza eta konpresak. Interesatuak urtarrilaren 29ra arte dute produktuak entregatzeko aukera.


Inoiz baino beherapen handiagoak izan dira aurten.

## Beste urteetan baino eskaintza hobek aurkitu dituzu beherapenetan?



**Cristina Hernandez**  
29 urte, etxeakoandrea

Bai, ez neukan beherapenetan erosteko asmorik, baina eskaintza oso onak ikusi ditut dendetan, eta aprobetxatu egin dut. Gabonetan ere egon dira eskaintzak, baina erregeen ondoren igartzen da, batez ere. Azkenean, bi aldiz gastatzen dugu, Gabonetan eta ondoren.



**Maria Longarte**  
33 urte, finantza aholkularia

Egia esan, inoiz baino gutxiago ibili naiz beherapenetan. Ez naiz oso zalea, eta normalean ez naiz beherapenen zain egoten, zerbait behar dudanean erosi egiten dut. Hala ere, dendetako kartelak ikusi ditut, eta iruditu zait eskaintza onak egon direla aurten.



**Pilar Larrañaga**  
66 urte, etxeakoandrea

Ez naiz beherapenetan ibili, baina urterokoen modukoak iruditu zaizkit. Beti egoten dira %20, %30 edo %50eko deskontuak, eta aurten ere horrela izan da. Gainera, hasierako egunetan kenduta, jende gutxi ibili delakoan nago. Krisia igarri egiten da.



**Ane Ibarzabal**  
24 urte, higienista

Ez naiz ibili beherapenetan, baina eskaintza hobek egon dira aurten, eta, gainera, inoiz baino lehenago hasita. Janari dendetan ere eskaintzak daude: dozena erdi arrautza, patata poltsa eta ogi bat euro baten truke eskaintzen dituzte denda batean!

ESKERTZA

### KAIET ANDUEZA GOROSTIZA

2009ko urtarrilaren 16an hil zen.



*Kaiet maitia,  
Zure irifarre polita  
izar bilakatu da bapatean;  
Elgoibar eta Arantzako gauak  
argituko dituen  
izar eder eta distiratsu batean.*

*Ez zara sekula itzaliko,  
Ez zara sekula emetatuko.  
Gauero zeruan dir-dir  
ikusiko zaitugu eta egun argiz,  
zu, alai eta jolasti  
oroituko zaitugu.*

**ASKO MAITE ZAITUGU**

*Ama, aita, Beñat, amama, aitxitxa, osaba Jon Gurutz,  
osaba Jon, izeba Nerea eta Unax.*

*Mila esker bihotz-bihotzez une gogor honetan gurekin egon zareten guztioi.*



**Danbaka III. MUSIKA LEHIAKETA****Saio borobilarekin,  
The Wet Bandek sari bikoitza**

Irabazi ala ez, partehartzaile zein ikusle, barixakuan ordu txikiak arte iraun zuen festak eta ospakizunak luzapena izan zuen gero Mutrikun. Ez da gutxiagorako, The Wet Band eskuak beteta itzuli zen etxera eta saio biribila egin izanaren poz guztiarekin. Finalak ez zuen huts egin, ezta epaimahaiak ere gaueko hiru taldeak aukeratzeko. Halere, inork ezingo die ukatu The Wet Bandekoei meritua, nahiz eta Adi Holdenekoak eta, batez ere, Norman taldearen saio basatia lehia gogorra izan.

Adi Holdenekoak hasi ziren ikusle urduri eta animatuak aztoratu guran. Ñabarduretan aberatsagoa izan zen barixakukoa,

baina agian ez zuen izan lehenengo saioak izandako distira edo xarma. Saioa, halere, ona izan zen.

Gaueko energia deskarga, beraz, egina zegoen eta The Wet Bandekoek bestelako moduak behar izan zituzten gauaren jabe egiteko. Esan liteke etxean jokatu zutela mutrikuarrek, Elgetara autobus bat lagun eraman zuten-eta. Animuak ondo berotuta, hazten eta mamitzen joan ziren eta zerua ukitu zuten bukaera aldera. Biribila eta aurrekoan baino askoz ere sinesgarriagoa izan zen The Wet Banden kontzertua. Bikain jardun zuten eta aurkako irizidunak, aitzakia gutxiarekin utzi zituzten.

Azkenik, Norman eta hain erakargarria den haien eromena. Abesti berrieekin arriskatu zuen laukoteak. Aurrekoan leherketa hutsa izan zen haiena eta barixakuan gauza berriak probatzeko ausardia izan zuten. Apustua da, zalantza barik eta emaitzak ez zuen aurrekoan moduko batasunik. Hala ere, ezin zaie ukatu saria berdinberdin joan zitekeela Eibarrera, eta pena da esku hutsik bueltatu behar izatea, baina lehiaketa bat da.

Amaitzeko, eta sari banaketako nerbioen aurretik Petti eta banda etorri zen piztiak baretzera, luxuzko gaua biribiltzeko.

**Sariak:**

Lehiaketako talderik onena  
**THE WET BAND**

Debagoieneko talderik onena  
**ADI HOLDEN**

Ikusleen taldea  
**THE WET BAND**




www.danbaka.com

**DANBAKA** ))))

III. MUSIKA LEHIAKETA

DEBABARRENA DEBAGOIENA DURANGALDEA

BABESLE NAGUSIA




LAGUNTZAILEA



HEDABIDE  
LAGUNTZAILEA



ANTOLATZAILEA



**Barre egitea gustuko duzu?**

Bai.

**Askotan egiten duzu barre?**

Txisteak-eta kontaktzen dizkidatenean, gehienbat. Txisteak gogoko ditut. Serioa, behintzat, ez naiz.

**Zein da azken boladan gertatu zaizun gauzarik barregarriena?**

Gabonetan, oinez nindoan, eta jausi egin nintzen. Nire anaia barrez hasi zen, eta gero ni ere barrez hasi nintzen.

**Barre egiten duzula esan dugu. Eta negar?**

Ez, ez. Gutxi.

**Gustura etortzen zara eskolara?**

Bai. Gehienbat lagunekin egoteagatik. Eskubaloian eta futbolekin ibiltzen gara. Ondo pasatzen dugu.

**Zer egiten duzu eskolatik irteadakoan?**

Soinu txikia jotzen dut, eta ikastera joaten naiz astean hirutan: asteartean, asteazkenetan eta ostegunetan.

**Gainerako egunetan?**

Etxean jolastu, txakurrekin-eta.

**Gauean lo asko egiten duzu?**

Larunbatetan hamarrak aldera joaten naiz lotara, eta zortzietan jaiki. Astean, 11:30ean joan eta 7:30ean jaiki. Telebista ikusten dut eta...

**Lotan zaudeneko ametsak gogoratzen dituzu?**

Gutxitan. Normalean ez dut ametsik gogoratzen.

**Esna zaudenean zerekin egiten duzu amets?**

Ezerekin ere ez.

**Trikitolari izatearekin, beharbada?**

Horrekin. Trikitilari izan nahi dut.



## Piratak



### Pirritx eta Porrotx ikusteko sarrerak agortu dira

Pirritx eta Porrotxek *Piratak* ikuskizuna eskainiko dute, Kiroldogian, otsailaren 1ean. Sarrerak martitzenean jarri zituzten salgai Herriko Antzokian eta agortu egin ziren: hainbeste jende hurbildu zenez, Iriondo tabernarainoko ilara sortu zen.





## ZELAN SORTU ZEN MUNDUA?

### Nagore Mugerza

6 urte

Jesusek egin zituen etxeak-eta. Lehen ez zegoen ezer. Denbora asko behar izan zuen.



### Iker Olabe

6 urte

Jesusek. Makinekin egin zuen. Ez dakit nolakoak ziren makinak. Ez zuen inoren laguntzarik izan.



### Gaizka Uranga

6 urte

Jesusek egin zuen. Nola? Egiten! Bestela nola egingo zuen? Ez egiten? Bi egunetan egin zuen.



### Maidar Mantecon

6 urte

Laguntzaileekin egin zuen mundua Jesusek. Bi laguntzaile edo. Lehen ez zegoen ezer.



### Aitor Niebla

7 urte

Izar bat zegoen lehenik, eta handik sortu zen beste guztia. Etxeak, mendiak eta azkenik jendea.



### Olatz Altzerreka

6 urte

Zerua eta lurra zeuden hasieran. Gero dinosaurioak, eta ondoren pertsonak.



## Arbelean

### Eskola Iraunkor izendatu dute Elgoibar Ikastola

Elgoibar Ikastolari Eskola Iraunkorraren ziurtagiria eman diote. Izan ere, Ikastolak Agenda 21 ekimenarekin bat egin zuen eta ziklo guztietan ezarri du. Agenda 21 konpromezu bat da, nazioartekoa, ingurumenarekiko errespetua zabaldu nahi duena.

Autonomia Erkidegoko 25 ikastetxek lortu dute ziurtagiria, tartean Elgoibar ikastola. Ziurtagiria urte amaieran eman zioten ikastolari.

Agenda 21aren inguruko berriak jasotzen ditu Elgoibar Ikastolaren web guneak ([www.elgoibarikastola.net](http://www.elgoibarikastola.net)).



# AITOR NOVA

Saxofonista

**Aitor Nova elgoibartarra saxofoiaren unibertsitate ikasketak egiten ari da Musikenen, Donostian. Laugarren maila egiten ari da, azkena, eta txikitatik duen afizioa omen da musika. Herritarren aurrean Musikenen ikasitakoa erakusteko aukera edukiko du hilaren 31n, 12:30ean, Herriko Antzokian egingo duten kontzertuan.**

**“Saxofoia instrumentu berria da eta oraindik hazten ari da”**



**Beti eduki duzu argi musika munduan jardun nahi zenuela?**

Bai, hasiera-hasieratik argi neukan. Zortzi urterekin hasi nintzen ikasten Elgoibarko Musika Eskolan eta ordutik argi neukan musika munduan aritu nahi nuela. Umetan, lehengusu batekin bandako akademiara joan nintzen. Instrumentu guztiak erakutsi zizkidan, saxofoiari putz egin nion, eta ordutik argi neukan saxofoia joko nuela. Akaso, beste instrumentu bat jo izan banu egun hartan, beste hori joko nuke gaur. Baina saxofoia jo nuen, eta asko gustatzen zait.

**Elgoibarko Musika Bandan ere jotzen duzu...**

Entsegu guztietara ezin izaten naiz joan, baina ahal dudanean, eta batez ere kontzertuetara agertzen naiz.

**Saxofoi bakar bat aukeratu beharko bazenu, zein?**

Altua aukeratuko nuke. Beste saxofoiak grabeagoak edo altuagoak dira, baina altua erdi aldean dago eta joko gehiago ematen du erreperitorio bat edo bestea joteko.

**Musikari profesionala izatea da zure asmoa, zein da lan ideala?**

Euskal herrian bertan badago aukera: Euskadiko Orkestran edo Bilboko bandan, adibidez. Eta bestela, klaseak ematen. Lan ideala musikako irakasle izango litzateke, baina zaila da. Baina helburua

saxofoia ondo irakastea da, instrumentu berria da, eta oraindik hazten ari da.

**Elgoibarren joko duzu Musikeneko taldearekin urtarilaren 31n.**

Hamabi edo hamahiru pertsonako taldea gara, eta saxofoiaren familiako guztiak joko ditugu: sopraninoa, sopranoa, altua, tenorea, baritonoa eta baxua. Abestiaren arabera saxofoi bat ala bestea jotzen dut: baina ekarriko dugun erreperitorioan, baritonoa joko dut eta abesti batean, altuarekin soloa joko dut.

**Eta zer sentitzen da herrian jotzean Elgoibarko Bandatik kanpo?**

Urduritasuna pixka bat. Beti eduki dut gogoia Elgoibarren jotzeko: hainbeste urte ikasten egon ondoren, ikasitakoa erakusteko gogoia daukat. Musika Eskolatik jotzen genuen, baina oraingoa ezberdina da. Presioa ere badaukat, lagun guztiei esan diet etortzeko, eta orain dudan guztia eman beharko dut.

**Zer musika gustatzen zaizu jotzeko, eta zein entzuteko?**

Saxofoiarekin jotzeko abesti ederrenak obra garaikideak dira, eta entzuteko, denetarik gustatzen zait: euskal musika popularretik hasi, eta beste edozein musika motara arte. Ikasteko denetik entzun behar dugu, baina etxean berbenetako euskal musika gustatzen zait.

## ‘Koloretan’ txapelketak emozioa ekarri zien San Anton jaiei

Zubi Ondo eta Gure Bide elkarteak omendu dituzte seilu erakusketan, 50 urte egiteagatik

**E**mozioz betetakoa izan zen San Antonetako *Koloretan* txapelketa, urtarrilaren 18an. Guztira berrogei lagunek parte hartu zuten (hamabost bikotek eta hamar norbanakok). Finalean, Julene Alberdi eta Ibon Arriola izan ziren irabazleak, eta 500 euroak eskuratu zituzten.

Naiara Martin eta Ane Odria bigarren gelditu ziren (300 euro) eta Andoitz Agirregomezkortak hirugarren postua lortu zuen (150 euro).

Elgoibarko Izarra gustura geratu da lehen aldiz antolatutako esperientziarekin eta datorren urtean errepikatuko dutela aurreratu du.

### Gure Bide eta Zubi Ondo

Bezperan, bestalde, San Anton Eguanean, Filatelia erakusketa zabaldu zuten Altzolatarren Dorretxea elkarteek, Kultur Etxean. Gure Bide eta Zubi Ondo elkarteek 50. urteurrena dela eta, bi talde horiek omendu zituzten. Erakusketa hila-ren 25era arte egongo da zabalik.



*Ibon Arriolak eta Julene Alberdiak garaipena lortu zuten unean.*



*Manu Conde eta Niko Molina, Gure Bide eta Zubi Ondo elkarteetako presidentek, filatelia erakusketan.*

## Filma grabatu dute Alcorta tailerlean



Lan-talde handia ibili da Elgoibarren *Forjados* film laburra grabatzen, joan den asteburuan. 25 bat lagun izan ziren Alcorta tailerreko makinaren artean eta hango aparkalekuan. Besteak beste, Ramon Agirre eta Asier Hormaza aktoreek parte hartu dute Ronroneo Films ekoiztetxearen produkzioan. Argazkia: Jabi Leon.

## ‘Gurean Bai’-ren otarrea Mari Tere Arregik lortu du

Mari Tere Arregik eskuratu du *Gurean Bai* ekimenaren otarra. 4.711. zenbakidun txartela berak zeukan, Karkizano dendan eskuratuta. Hori dela eta, euskal produktuz hornitutako otarrea eroan du etxera.



# ATXOTEGI eta LOIOLA Pilotariak

Hirutan jokatu du San Anton txapelketako finala Eneko Loiola elgoibartarrak, eta hiruretan galdu. Aitor Atxotegi sorluzearra bikote zuela txapel, gabe gelditu zen aurreko barixakuan ere, Muguruza eta Jauregiren kontrako partidari (22-12). Udaberriko hainbat txapelketatan ilusio handiz jardungo dute Atxotegik eta Loiolak.



“San Anton txapelketan besteak hobeak izan ziren”

**Hirutan finalera ailegatu eta hiruretan txapelak kale. Zer gertatzen da, Eneko?**

LOIOLA: Beste bietan baino ilusio handiagoarekin joan naiz aurtan. Berez, nire pareja Atxotegi da gehienetan, eta frontoia beteta ikusi eta galtzea berriz ere... Hori txarrena!

**Ondo prestatuta joan zarete baina!**

LOIOLA: Hobeto egon izan naiz; badakizu gabonetan eta zer izaten den. Horren aitzakiarik ez dago. Lehengoan besteak hobeak izan ziren, eta zorionak eman behar.

**Beste atzelariak, Jauregik, oso ondo jokatu zuen, ezta?**

ATXOTEGI: Denon partez jokatu zuen. Nik uste dut orain bera dela atzelariarik onena afizionatueta. Lehenago Asperekin joan-ez joan ibili zen, presiopean. Orain ez dauka horrelako nerbiorik adinagatik, eta trankiltzeak mesede egin dio.

L: Besteak oso ondo dabiltzanean ez dizute jokatzeko lagatzen. Jauregik elegante jokatu zuen, ezker-eskubi.

**Zelan ikusi duzue zuen burua txapelketan?**

L: Lehenengo partida kristorena egin genuen. Huts dexente egon zen, baina kristoren ritmoa izan zen: Rico aurrelariak bizi-bizi jokatu zuen

pelota, eta atzelariak ere bai. Sufrimendua egon zen azkenera arte, eta suerte pixkat: 20-21 galtzen joanda, irabazi genuen. Lehenengo partida oso ondo jokatu genuen. Finalean horrela jokatu bagenu, ez dut esaten irabazi, baina hobeto ibiliko ginen. Finala gogorra izan zen. Dena atzera botatzen zuten eta gogorra izan zen niretzat. Hainbeste jenderekin ere nerbio handiak izaten dira. Tentsioarekin nekatu lehena-go egiten zara.

**Zelan dago ikastolako frontoia?**

L: Humedadea kristorena dago, eta itoginak ere bai. Frontisa ez dago zuzen eta pelotek forma segituan galtzen dute. Txiki geratu zaigu frontoia: nagusietan zazpi-zortzi lagun ibiliko gara, eta lau jokatzeko bagabiltza, ez dago lekurik atzean berotzeko, ez ezertarako. Frontoi handiagoa behar da. Afiziorik ez da egongo Elgoibarren, baina lehengoan ikusi zen horrelako partidak eginez gero jendea etortzen dela.

**Eragin handia du frontoi txikian jarduteak?**

A: Gero frontoi handi batera jokatzera joaten garenean, atzelariak ez dute frontisa erditik gora aprobetxatzen, txikian gora egiten ez gaude-lako ohituta. Kristoren alde dago. Gora metro bat botatzea atzera ko-adro bat egitea izan daiteke.

# Munduko xake txapelkun ohi baten kontra jokatu du Mikel Leonek

Urretxuko Eire Torneoan izango da lehia, domekan

Urretxuko Eire Xake Torneoa irabazi zuen iaz Mikel Leon elgoibartarrak, eta aurten, erronka handiagoa du aurrean: torneo berean, Ruslan Ponomarioven aurka jokatu beharko du, 2002ko munduko txapelkunaren kontra, alegia. Domekan aurkeztuko dute torneo, eta Ruslanek zortzi pertsonaren aurka jokatu du aldi berean, eta itsu, ajedrez tableroak ikusi gabe. Iazko onenen aurka ariko da, eta Leon txapelkuna izan zenez, aurrez aurre edukiko du ukrainarra, domekan, 12:00etan hasita.

Baina Leon ez da izango Urretxuko torneoan parte hartuko duen elgoibartar bakarra: Juan Manuel Navarro ere han izango da. 56 parte hartzaile ariko dira leihan, zazpi pertsonako zortzi taldetan banatuta. Talde bakoitzeko lehenengo laurak sailkatuko dira hurrengo fasera.

## Ikusmina sortzen duen kirola

Bestalde, martxan da xakeko talde-kako liga, eta momentuz, Lerun xake taldea martxa onean doa. San Andres taldearen aurka 1-3 irabazi zuen joan den asteburuan Arrasaten jokatuak partidetan. Elgoibarko lau jokalariek batek ere ez zuen galdu.



Xake txapelketak ikusten jende asko egoten ez bada ere, horrek ez du esan nahi interesa sortzen ez duenik. Izan ere, abenduaren 12tik 19ra bitartean jokatu zen Elgoibarko Nazioarteko Xake Txapelketako partidak zuzenean, bertatik bertara, jarraitzen jende gutxi ibiltzen bazen ere, Euskal Xake Federazioak zabalduak datuen arabera, txapelketak iraun zuen bitartean 313.136 lagun sartu ziren Internetet bidez partidak jarraitu edo txapelketaren berri izateko. Kontraste bitxia eta kopuru izugarria.

## Bike Zona taldea aurkeztuko dute bihar, hilak 24, Mintxetako BTT Zentruan

Mintxetako BTT Zentruan Bike Zona taldearen itxura berria aurkeztuko dute bihar, hilak 24, goizeko hamarretatik aurrera. Urtea bizikleta eta ekipamendu berriekin hasiko du taldeak. Aurkezpena egin ondoren, 12:00etan, hamaiketako egingo dute Aubixako aterpetxean. 12:30ean erakustaldia egingo dute Aiestia-San Migelen, eta, amaitzeko, 15:00etan bazkaria egingo dute Txarriduna hotelean.



## EMAITZAK

### FUTBOLA

Portugalete 1 – Elgoibar 1 (Haundi)  
Urola 2 – Elgoibar 2 (1. erreg.)  
Elgoibar 3 – Zestoa 2 (Jub.)  
Elgoibar 1 – Eibar 3 (Kad.)  
Elgoibar 3 – Amaiak Bat 1 (Inf.)  
Aretxabaleta 2 – Elgoibar 0 (Tx.)  
Eibartarrak 1 – Elgoibar 0 (Neskak)  
Amaiak Bat 1 – Elgoibar 6 (Aleb.)

### ARETO FUTBOLA

Tecnuni 6 – Kenci Elg. 7 (Nazional B)

### ESKUBALOA

Zuazo 23 – Tecnifuelle Elg. 22 (Sen. nesk.)  
Kukullaga 45 – Cometel Elg. 18 (Jub. nesk.)  
Kukullaga 28 – IMH Elg. 38 (Kad. nesk.)  
Arrasate 20 – Alkorta Elg. 33 (Sen. mut.)  
Jauja 46 – Pneumax Elg. 35 (Kad. mut.)  
Ikus Elg. 24 – Egia 15 (Kad. nesk.)  
Bankoa Elg. 32 – Pulpo A 28 (Inf. mut.)  
Txarriduna Elg. 24 – Zarautz C 18 (Inf. mut.)

## AGENDA

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapateria, 24

12:30 Elgoibar – Añorga (Kad.)

16:30 Elgoibar – Laudio (Haundi)

18:30 Elgoibar – Mondra (1. erreg.)

### SASKIBALOA (Kiroldegian)

Zapateria, 24

13:00 Anboto – Eskibel (Inf.nesk.)

Domekia, 25

12:00 Gabi Jatetxea – Oiartzun (Sen.mut.)

### ESKUBALOA (Kiroldegian)

Zapateria, 24

11:30 Lili Elg. – Pulpo (Inf.nesk.)

16:00 IMH Elg. – san Adrian (Kad.nesk.)

17:30 Cometel Elg. – San Adrian (Jub.nesk.)

19:00 Tecnifuelle Elg. – Urdaibai (Sen.nesk.)

Domekia, 25

9:00 Aterpe Elg. – Aiala Zarautz (Inf.nesk.)

10:30 Alkorta Elg. – Amenabar Zarautz (Sen.mut.)

### ESKU PILOTA (Ikastolan)

Barixakua, 23

Udaberri Txapelketa

22:00 Lagunak – Arrasateko (2. mailako jub.)

Ostean Bergara – Lagunak (1. mailako jub.)

Ostean Intza – Lagunak (2. mailako nag.)

Ostean Zumaia – Lagunak 1 (1. mailako nag.)

Ostean Antiguako 2 – Lagunak 2 (1. mailako nag.)

**LANA**

**ESKAERA**

- Andre euskaldun batek lan egin nahi du, esperientzia handia pertsonak nagusiak zaintzeko. Egunez edo gauzez. ☎ **943 74 44 33**
- Neska, lanerako prest, garbiketa lanetan edo umeak eta nagusiak zaintzen. ☎ **660 919 423**
- Emakumea garbiketarako edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **649 212 944**
- Emakumea, umeak edo nagusiak zaintzeko prest edo soziedadeak, etxeak, eskailerak garbitzeko prest. ☎ **699 609 190**
- Emakumea, lanerako prest, garbiketan, sukaldari laguntzaile edo nagusiak zaintzen. ☎ **678 939 382**
- Emakumea, lanerako prest, bai haurrak edo nagusiak zaintzen, bai garbiketa lanetan eta baita zerbitzari lanetan ere. Egun guztian zehar. ☎ **680 250 527**
- Emakumea, lanerako prest, haurrak edo nagusiak zaintzen, garbiketa lanetan edo zerbitzari lanetan. Egun guztian zehar. ☎ **686 545 884**
- Mutila, lan egiteko prest. Edozein lanetan. ☎ **697 729 956**
- Emakumea, lanerako prest. Arratsaldez nahiago, batez ere 14:00etatik 19:00etara. ☎ **696 246 962**
- Emakumea lanerako prest, umeak zaintzen edo nagusiak zaintzen. Egun osorako. ☎ **671 476 869**
- Neska, garbiketa lanak, pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko prest. Orduka. ☎ **617 056 828**.
- Emakumea, tabernak, elkarteak edo portalak garbitzeko prest. Baita ere pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko. ☎ **618 163 061**.
- Emakumea lanerako prest, gida baimenarekin. Base-rriko lanak gustoko ditu. ☎ **669 154 143**

- Mutila, sukaldari laguntzaile, igeltzero, kamarero... lanak egiteko prest. ☎ **630 764 528**
- Emakumea, haurrak edo nagusiak zaintzeko prest, baita ere garbiketa lanak egiteko. ☎ **646 235 195**
- Emakumea haurrak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Interna egoteko prest. ☎ **646 821 678**

**ESKAITZA**

- Klase partikularrak ematen dira (ingeleseko titulu ofizialak prestatzeko eta selektibiterako). ☎ **605 739 536**
- Pertsona euskaldun baten bila nabil egunean 2 orduz euskarako klaseak emateko. ☎ **685 405 929**
- Jatetxerako sukaldaria behar da. Esperientzia ☎ **943 741 230**
- Zerbitzaria eta sukaldaria behar dira. ☎ **943 74 31 96**
- Lan poltsa osatzeko curriculumak behar dira. Beharrezkoak (haurtzaindegi teknikaria, HH, LH,DBH) batetik, eta bestetik (mekanografia, euskara eta gaztelaniaren dominioa). Interesatuak bidali CVA, [elgoibar@kastola.net](mailto:elgoibar@kastola.net)

**ETXEBIZITZA**

**ALOKAIRUA**

- Etxea alokatzen da Mendaron. ☎ **658 379 393**
- Neska gaztea, logela baten bila Elgoibarren. ☎ **943 743 505**
- Bi logela alokatzen dira Urasandin. ☎ **660 739 835**
- Logelak alokatzen dira, bakoitzak bere bainugelarekin. Prezio onean. ☎ **679 155 980**

- 90 metro koadroko etxebizitza alokairuan Mendaron. 4 urteko etxebizitza, garaje eta trasteroarekin. 2 komun, 3 logela, sukalde eta egongelarekin. Kaldera tendereroan dauka. ☎ **652 757 240**

**SALGAI**

- Etxebizitza salgai Nojan (Kantabria), urbanizazio pribatu batean eta berdegunearekin. Altzariz josia, 65m<sup>2</sup>, berogailua eta bi plazako garajea. ☎ **639 211 185**
- Pisia saltzen da Altzolan. 3 logela, sukalde, des-pentsa eta komuna (ekonomikoa). ☎ **680 707 639**

**LOKALAK**

- Garajea alokagai Mugerza pasealekuan (pista beltza), itxia edo irekia ☎ **943 741 436**
- Garajea salgai (Urasandi behean, Madala parean), 23 metro koadro ditu. Bi kotxerentzako tokia, bigarren solairuan tente egoteko altuera dauka. ☎ **637 946 954**

**BESTELAKOAK**

- Etxeko altzariak, etxetresna elektrikoak, ohe-erropa eta gortinak behar dira. ☎ **676 444 171**
- Nintendo DS galdu nuen errege egunean Plaza inguruan. ☎ **679 684 318**
- Perla beltzak dituen Viceroy markako pultsera bat galdu da. Trenbide eta Santa kale bitartean. Eskertuko da pultsera bueltatzea. ☎ **688 664 727**

**Lagunduiguzu BARREN astekaria hobetzen!**

1. BARREN ALOKAIRUA...  
2. ETXEBIZITZA...  
3. GARAJEA...  
4. ALKATEAREN...  
5. BOSTE...  
6. BERGAREN...  
7. MENDI...  
8. MENDI...  
9. ZEHAR...  
10. KITA...

- \* Gaur jaso duzun inkesta bete eta laga Correoseko buzoian otsailaren 15a baino lehen
- \* Telefono bidezko inkestak egiten otsailaren 2an hasiko gara.

Mila esker zuen laguntzagatik



• Zorionak, **Sorgintxo**, zure laugarren urtebetetzean. Etxekoen, eta bereziki, Eiderren partez.



• Zorionak, **Mikel**, gaur sei urte egin dituzulako. Familiakoen partez.



• Zorionak, **Marje Azpia-zuri**, gaur urteak egin dituelako. Senideen, eta bereziki ilobatxoen partez.




• Zorionak, **Jose Migell** Gurasoen, aitona-amonen, osaba-izeben eta eskolako lagunen partez.



• Zorionak, **Erika**, domekan hiru urte egingo dituzulako. Muxu bat gurasoen eta Maddiren partez.




• Zorionak, **Ekain!** Hiru urte handi egin dituzu! Muxu handi bat familiakoen partez.



• Zorionak, **Ane Salegi**, hilaren 27an bederatzia urte egingo dituzulako. Familiakoen eta bereziki, Izaroren partez.



• Zorionak, **Saral** Mila muxu eta mila desio on. 22an bost kandelak itzali zenduzen?



• Zorionak, **Urko**, hilaren 27an zortzi urte egingo dituzulako. Familiakoen, eta bereziki Izaroren partez.



• Zorionak **Ion Maiztegori**, gure etxeko mutil koxkorriari, bihar bost urte egingo dituelako. Muxu handi bat gurasoen partez.



• Zorionak, **Ander eta June** zuen urtebetetzean. Mila muxu, txapeldunak.



• Zorionak, **Miren!** Zure bigarren urtebetetzean belarri tirakada bat eta laztan asko gurasoen eta familiakoen partez!



• Zorionak, **Uxue eta Elur**, zuen lehenengo urtebetetzean. Anai-arreba, guraso, lehengusu eta amonaren partez.



• Zorionak, **Leire eta Ane!** Muxu asko gurasoen partez, alaba onak izateagatik.



## OHARRA

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia eguazten eguerdia baino lehen ekarri behar duzu BARRENEko bulegora edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) e-postara bidali. Tel.: 943 744 112

**ELENA**

**ileapaindegia**

**Depilazio Elektrikoa**

San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89



**Mandiola Egurrak S.L.**

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA  
BASOEN MOZKETA



Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83

**OKINDEGIA**

25 domeka **IBARRENEA**

**FARMAZIAK**

**24 ORDUZ**

- 23 Zabaleta
- 24 Etxeberria (*Errosario*)
- 25 Etxeberria (*Errosario*)
- 26 Ibañez
- 27 Garitaonandia
- 28 Etxeberria (*Santa Ana*)
- 29 Fernandez
- 30 Yudego

**Ibañez**

Rekalde, 1 (SORALUZE)  
Tel: 943 75 16 38

**Fernandez**

Herriko enparantza 4,  
Garagarza (MENDARO)  
Tel: 943 75 61 42

**Zabaleta**

Kalebarren, 9 (SORALUZE)  
Tel: 943 75 13 84

**INFORMAZIO  
GEHIAGO:**

Egin klik



[www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net)



**23 barixakua**

**Zinea**

22:00 Bideo foruma  
Haizeak antolatuta, *Las hermanas Bolena* pelikula ikusteko aukera izango da. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

**24 zapatua**

**Kirola**

10:00 Mendi bizikleta talde baten aurkezpena  
Bike Zona mendi bizikleta taldearen aurkezpena egingo dute. Mintxetako BTT zentroan.

**Ikastetxeak**

11:00 Ate irekiak  
IMHko Ingeniaritza Eskolaren ate irekiak. IMHn.

**25 domeka**

**Mendia**

10:00 Mendi irteera  
Ikastolakoek Samiñora joango dira. Ikastolatik irteera.

**26 astelehena**

**Artea**

17:00 Arte ikastaroa  
Haizeak antolatuta, arte ikastaroa Kultur Etxean.

**27 martitzena**

**Literatura**

18:00 Literatura ikastaroa  
Haizeak antolatuta, Jose Saramagoren *El año de la muerte de Ricardo Rey* liburuaren irakurketa.

**29 eguena**

**Solidaritatega**

16:00 Bakearen eguna  
Pilar Ikastetxean. Ondoren, merienda solidarioa egingo dute. Tortila pintxoak eta freskagarriak saltzen lortzen duten dirua Miski eta Manos Unidas erakundeai emango diete.

**30 barixakua**

**San Juan Bosco**

9:00 Jokoak eta jolasak  
BH Institutoko ikasle eta irakasleek hainbat proba izango dituzte egunean zehar: krosa, mendi-bizikleta frogak, goitibehera jaitsierak... Horrez antzerki emanaldiak, marrazketa eta patata tortila txapelketa izango dira.



**GAZTELEKUKO EKINTZAK**

**BARIXAKUA 23**

Sukalde txokoa 17:00

**ZAPATUA 24**

Ping-pong txapelketa eta rally sari banaketa 17:00

**DOMEKA 25**

Zinea 17:00

**MARTITZENA 27**

Eskulanak 17:00

**EGUAZTENA 28**

Txoko pribatua 17:00

**EGUENA 18**

Blogak berri 17:00



**LUDOTEKAKO EKINTZAK**

**BARIXAKUA 23**

Sukaldaritza tailerra 17:00

**ASTELEHENA 26**

Ping-pong txapelketa 17:00

**MARTITZENA 27**

Mahai jolasak 16:30

**EGUAZTENA 28**

Eskulanak 17:30

**EGUENA 29**

Jolas libre 16:30

**«Red de mentiras»**

- 23, barixakua: 22:15
- 24, zapatua: 19:00/22:15
- 25, domeka: 19:00
- 26, astelehena: 21:30

AEB, 2008. Zuzendaria: Ridley Scott. Aktoreak: Leonardo DiCaprio, Russell Crowe, Mark Strong. Iraupena: 129 min. 18 urtetik gorakoentzat. Kazetari ohi bat CIA n hasiko da lane-

an, Jordanian dagoen ekintzaile arabiar bat harrapatzeko. Lankidetzan aritu beharko du CIAko kide beterano batekin eta Jordaniako zerbitzu sekretuetako buruarekin.





## Gure gomendioa

### Bideo foruma

Gaur, 22:00etan, Kultur Etxean

Haizea emakume taldeak antolatuta, *Las hermanas Boleña* film ezaguna ikusteko aukera izango da gaur gauean Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Henrike VIII.a Ingalaterrako erregea etsita dago, oinordeko bat nahi baitu. Emazteak, Katalina Aragoikoak, ez dio semerik ematen. Henrikek maitale ugari ditu, eta horietako azkena, Maria Boleyn, haurdun geldituko da. Gero, Mariaren ahizpa Ana azalduko da, erregea konkistatzeko asmoz.




Antonio Urkidi  
Josefina Fernandez

**URKIDI**  
AHOLKULARITZA



Tel.: 943 74 18 91  
Faxa: 943 53 01 49  
Kalamua, 12



**MEKANOSA**

Errosario, 27  
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

# Zerikasi

## IKASTAROAK

### Apal betetzailleak eta kutxazainak

Norentzat: Langabetuentzat  
Hizkuntza: Gazteleraz  
Hasiera data: 2009-01-26 / Bukaera data: 2009-02-20  
Non: Eibarren  
Izenemate bukaera: Urtarrilak 30

### Sukaldaritza begetarianoa

Norentzat: 16 urtetik gorakoentzat  
Hizkuntza: Euskaraz eta gazteleraz  
Hasiera data: 2009-02-02  
Non: Eibarren  
Izenemate bukaera: Urtarrilak 30

### Sendabelarrak Euskal Herrian

Norentzat: 16 urtetik gorakoentzat  
Hizkuntza: Gazteleraz  
Hasiera data: 2009-02-03  
Non: Elgoibarren  
Izenemate bukaera: Kotsultatu

### Tai Chi Kung

Norentzat: 16 urtetik gorakoentzat  
Hizkuntza: Gazteleraz  
Hasiera data: 2009-02-06  
Non: Eibarren  
Izena emateko: Kotsultatu

### Reiki masajea

Norentzat: 16 urtetik gorakoentzat  
Hizkuntza: Gazteleraz  
Hasiera data: 2009-02-13  
Non: Eibarren  
Izena emateko: Kotsultatu

Informazio eta eskaintza zabalagoa:  
[www.zerikasi.com](http://www.zerikasi.com) edo 943 74 82 71

### «My blueberry nights» (Ongarri zine-kluba)

29, eguena: 21:30

Hong Kong-Txina-Frantzia, 2007. Zuzendaria: Wong Kar-Wai. Aktoreak: Jude Law, Norah Jones, Natalie Portman.

Iraupena: 111 minutu.

Oroitzapenez betetako bizitza atzean utzi

eta Amerikan bidaia bat hasiko du Eliza-bethek. Zerbitzari gisa lan egiten duen birtartean, hainbat pertsona berezi ezagutuko ditu. Horien bidez, bere burua hobeto ezagutzen hasiko da.

## Gure berbak

### Aditza (39): Aditz trinkuak: EUKI aditza

EUKI aditza aztertzen hasiko gara gaurkuan.

Gure inguruan dezente erabiltzen dan aditza dogu, eta, aditza jokatzeko dogunian, bi eratako formak erabiltzen dira; txandakatzia edo alternantzia ere esaten jakona da hori: AU / A. Hona alternantzia honen adibidiak:

- ♦ Poltsikuan *daukat / dakat gaurko pagia*.
- ♦ *Ez dauka / daka inportantziarik, eta la-sai egon.*

Hona zein diran EUKI aditzaren forma arruntenak oraiñaldixan (betiere, AU-ren ordean A egiten deben formak ere arruntak dirala kontuan hartuz):

- ♦ Neutra: *daukat, dauka, daukagu, daukazu, daukazue, dauke*.
- ♦ Alokutiboa (giz.): *jaukat, daukak, (harez) jaukak, jaukagu, (harez) jaukek*.
- ♦ Alokutiboa (emak.): *jaukanat, daukan, (harez) jaukan, jaukanagu, (harez) jauken*.

Objetua pluralekoa baldin bada (txanponak euki, adibidez), Elgoibarren gehixen erabiltzen dan pluralgille klasia erabiltzen da, amaierako -Z, hain zuzen. Hona zein diran formak:

- ♦ Neutra: *daukadaz, daukaz, daukaguz, daukazuz, daukazuez, daukez*.
- ♦ Alokutiboa (giz.): *jaukadaz, daukaz, (harez) jaukaz, jaukaguz, (harez) jaukez*.
- ♦ Alokutiboa (emak.): *jaukanadaz, daukanaz, (harez) jaukanaz, jaukanaguz, (harez) jaukenez*.

Jesus Mari Makazaga

## Erretratu zaharra

### 1967

Jose Mari Zubiak laga digu aste honetako erretratu zaharra. Plaza Txikian aterata dago, San Luis Gonzaga kongregazioaren futbol txapelketan. Zortzi edo hamar taldek hartzen zuten parte, auzo edo kale bakoitzetik bat. Egun hartan Gazteak eta Zazpi taldeek jokatu zuten partida. Norgehiagoka gogorra izan zen, eta gol bakarra egon zen, Gazteak taldekoen alde. Arbitroa Alejandro Gonzalez izan zen, eta talde galtzaileak sekulako errieta egin zion. Ikusi ditzagun gazte horiek:

**Zutik, ezkerretik eskumara:** Jesus Viñaras, Iñaki Unzueta (†), Pedro Cornejo, Jose Luis Oria, Anjel Kortaberria, Julian Loiola, Jose Luiz Rezola, Juan Martin, Rufino Eizagirre, J.A. Urbieta, Patxi Zubiaurre.

**Behan:** J.M. Perez, Josetxo Altuna, Txomin Moreno, J.A. Moreno "Rubito" (entrnatzailea), Guillermo Colino, Luis Mari Riaño, Jose Antonio Lasuen eta Jose Mari Zubia.



### ESKERTZA

## LUIS MARI LEYARISTI YRIONDO

2009ko urtarrilaren 15ean hil zen Donostian, 73 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





# ASKETA S.L.

Eraikuntzako zerbitzu integrala

Maxpe, 3-5 behea  
20820 DEBA  
Tel.: 943 19 19 52 ( 6 linea)  
Faxa: 943 19 24 60  
E-posta: asketa@telefonica.net  
www.asketa-reformas.com

**Fatxada eta teilatuetan espezialitatea**  
**Gehienezko kalitatea prezio onenean**



Lehen



Orain



Santa Klara, 26 behea ezkerre

Te.: 943 74 15 52 / 606 43 11 20

**GEHIENeko BERMEA**  
**AKABERA ETA GARBIKETAN!**

[www.blokdekorazioa.com](http://www.blokdekorazioa.com)

[blokdekorazioa@euskalnet.net](mailto:blokdekorazioa@euskalnet.net)

Eskatu aurrekontua  
konpromisorik gabe!



# SANTA AGEDA ESKEAN, BASERRIZ BASERRI

Otsailak 4, asteazkena

Arratsaldeko 14:30etatik aurrera



Izena emateko deitu edo idatzi Elgoibarko Izarra Kultur Elkartera:

[elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com) / 943 74 16 26 (Imanol)

Azken eguna: urtarrilak 30

Antolatzailea:



Babeslea:



Elgoibarko Udala